



**2024KO AZAROAREN 26KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lau azaroaren hogeita seian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertarutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Puntu honi dagokion dokumentazioa ez da aurkeztu, beraz 2024ko azaroaren 11ko akta hurrengo Tokiko Gobernu Batzordearen bilkuran aurkeztuko da bere onarpenerako.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 85 zenbakidun zerrenda EHUN ETA HEMEZORTZI MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA BI euro ETA HOGEITA HEMEZORTZI zentimokoa (118.882,38 €), bere espedientearen dagoena, onartzea erabaki da.

III.- ZUBIZKITZA AUZOKO 3. FASEA BERRURBANIZATZEKO OBREN KONTRATAZIO ESPE-DIENTEAREN ESLEIPENA.-

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Zubizkitza auzoko 3. fasearen berrurbanizazio obrak, prozedura ireki sinplifikatu bidez eta lehiaketa bidez, esleitzeko kontratazio espedientearen eta honi dagokion baldintza teknikoaren eta administrazio-baldintza partikularren agiriak onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.

Lehiaketaren deialdia kontratatzailearen profilean argitaratu zen 2024ko urriaren 3an eta proposamenak aurkezteko jarritako epean, 2 proposamen aurkeztu ziren.

Aurkeztutako enpresak honako hauek dira:

- SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.
- CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L.

Aurkeztutako enpresa guztiak onartuak izan ziren.

Administrazio-dokumentazioa eta balio-iritziei lotutako irizpideen arabera baloratu beharreko dokumentazioa jasotzen zuten "A" artxibo elektronikoak 2024ko urriaren 25ean, eguerdiko 12etan, ireki ziren.

"A" artxibo elektronikoaren dokumentazioa aztertu ondoren, onartutako enpresek aurkeztutako balio-iritziei lotutako irizpideen arabera balioztatu beharreko dokumentazioek lortutako puntuazioa ondorengoa da:

	SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.	CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L.
Laneko programa eta obra plana (15 puntu)	15,00	15,00
GUZTIRA	15,00	15,00

2024ko azaroaren 6an, goizeko 12etan, kontratazio-mahaiaren jendaurreko bilkuran, proposamenek balio-judizioei lotutako irizpideak aplikatuta lortutako puntuen berri eman zen, eta, jarraian, automatikoki aplikatzeko irizpideen arabera balioztatu beharreko dokumentazioa barneratzen zuten "B" artxibo elektronikoak ireki ziren.

Hauek izan ziren onartutako 2 enpresek aurkeztutako eskaintzak:

ENPRESA	Proposamen ekonomikoa	Berme-epea
SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.	276.002,00 €	5 urte
CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L.	279.793,63 €	5 urte

Enpresa lizitatzailerak lortutako puntuazioen sailkapena, handienetik txikienera:

ENPRESA	Prop. teknikoa	Prop. ekonomikoa	Bermea	GUZTIRA
SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.	15,00	75,00	10,00	100,00
CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L.	15,00	73,64	10,00	98,64

Ondorioz, eta lehen sailkatua SASOI ERAIKUNTZAK, S.L. izanik, kaudimen baldintzak betetzen dituela eta lizitatzaileraren erregistroan inskribatuta dagoela baieztatu ondoren, esleipena egin ahal izateko fidantza eratu zezala eskatu zitzaion.

SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.k fidantza eratu du.

Hau honela, kontratazio mahaiak SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.ren aldeko esleipen proposamena egin du.



LAZKAOKO UDALA

Hau guztia kontuan izanda, kontratazio mahaiaren proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aldeko 3 botoz (EAJ), 2 abstentziorekin (EH Bildu) eta aurkako botorik gabe, honako akordio hauek hartu ditu:

Lehenena.- Zubizkitza auzoko 3. fasearen berrurbanizazio obrak SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.ri esleitzea, BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMASEI MILA ETA BI euro (276.002,00 €) gehi dagokion BEZ prezioan, hau da, proposatzaileak bere eskaintza ekonomikoan jarritako prezioan.

Bigarrenena.- Esleipen honen jakinarazpena kontratazio prozedura honetara aurkeztutako guztiei egitea, hala nola kontratatzailearen profilean argitaratzea.

IV.- HEZKUNTZA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Hezkuntza batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartu du:

- San Benito Ikastolari.-

Udalaren eta San Benito Ikastolaren artean 2024an izenpetutako hitzarmenean adostutako dirulaguntzaren bigarren zatia, hau da, 17.000 € ematea mantentze gastuetarako eta 11.500 € ematea jarduerak aurrera eramateko.

Ordainketak aurrekontuko partida hauetatik egingo dira:

- 1 481.01.326.00 partidatik, mantentze gastuetarako.
- 1 481.02.323.00 partidatik, jardueren gastuetarako.

V.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

- Goierriko Hitza eta Goierri Telebistari.-

Biztanleko 2 € ematearen irizpidea jarraituz, komunikabide bakoitzari 2024ko urteari dagokion dirulaguntzaren bigarren zatia, 6.013 €-koa bakoitzari, orain ordaintzea.

Ordainketa 2024ko aurrekontuaren ondorengo partida hauetatik egingo da:

- Goierri Telebistari 471.01.491.00 partidatik
- Goierriko Hitzari 471.02.491.00 partidatik

- Lemniskata elkarteari.-

Lemniskata elkarteari 2.000 €-ko dirulaguntza ematea.



Dirulaguntza 2024ko aurrekontuaren 481.03.334.00 partidatik ordainduko da.

VI.- OSASUN ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Alkatetzatik egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako diru-laguntza hau onartu du:

- Lau Katu Lazkao - Katuen babeserako elkartea.-

Bere jarduera babestu eta diruz laguntzeko, 2024ko aurrekontuan aurreikusitako dirulaguntzaren bigarren zatia, 1.000 €-koa hain zuzen, orain ematea.

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 481.01.311.00 partidatik egingo da.

VII.- EKONOMIA SUSTAPENA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- 2024ko Gabonetako erakusleiho lehiaketa.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako, Lazkaoko Udalak 2024ko Gabonetarako antolatutako erakusleiho lehiaketa kanpainaren barnean, parte hartuko duten merkatariei eta herritarrei ondorengo sariak ematea:

- Merkatariei: lehen hiru merkataritza sailkatuei Gabon-saski bana, 363 euroko guztizko balioa dutenak.
- Herritarrei: erosketa bono gisa sariak. 300 euroko sari bat eta 100 euroko lau sari, guztira 700 euro.

Guztira 1.063 euro ematea onartu da, eta ordainketak Udal aurrekontuaren 1 471.01.433.01 partidatik egingo dira.

- Merkatariei erosketa bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2024ko urrian martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei hirugarren ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA	LAGUNTZA
JULEN IRURZUN IRAOLA (OREKA)	260 €	65,00
IDOIA MATXINANDIARENA (A.BELEN)	645 €	161,25



AMAIA SORAZU (EKILORE)	380 €	95,00
JAVIER GUTIERREZ HERNANDEZ (UNARO)	470 €	117,50
IDOIA GODOY ATXAGA (FARMAZIA)	575 €	143,75
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	1.150 €	287,50
AINHOA GURRUTXAGA (ILEAP.)	750 €	187,50
AINHOA OLARAN (FISIO ZENTRUA)	510 €	127,50
LIERNI FDEZ. CARRERO (NARE)	110 €	27,50
LIERNI FDEZ. CARRERO (NARE)	400 €	100,00
LEIRE VELASCO SEISDEDOS (LEIRE ESKULA)	590 €	147,50
MILA MTNEZ. (DIGITAL IZAR)	30 €	7,50
JULEN IRURZUN IRAOLA (OREKA)	120 €	30,00
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	885 €	221,25
GARAZI ZUFIRIA (ARRIARAN MERTZ.)	745 €	186,25
NEKANE GARMENDIA...CB (GARAIZ)	1.355 €	338,75
GERRIKO SL	200 €	50,00
EIDER LUNA (STYLO ILEAPAINDEGIA)	810 €	202,50
JAVIER GUTIERREZ HERNANDEZ (UNARO)	1.295 €	323,75
AMAIA CARRO Y OTROS CB (HIRUTXOKO)	30 €	7,50
FONTANERIA JESUS GOMEZ SL	85 €	21,25
JUANA PANIAGUA FRANCISCO	100 €	25,00
GUZTIRA	11.495	2.873,75

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da

VIII.- LANDA EREMUA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa Eremuko batzordetik baserritar ekoizleei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Baserritar ekoizleei bonoengatik.-

Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2024ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei bosgarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

EKOIZLEA	GUZTIRA	DIRU LAGUNTZA
AITOR IZTUETA BARANDIARAN	610 €	261,43 €
AITOR IZTUETA BARANDIARAN	50 €	21,43 €
IKER SUKIA MESAS	595 €	255,00 €
GUZTIRA	1.255 €	537,86 €

Dirulaguntzari dagokion zatiaren ordainketa, aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeirenean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.

